



## IKASLEEN GALDEKIZUNA

Gauza bat jakin nahi dugu: zure ikaskideen artean norekin egiten duzun **beti euskaraz**, eta norekin **beti** edo askotan **gaztelaniaz**. Kasu bakoitzean **izen bakarra** idatzi behar duzu.

Baldin ez baduzu inorekin beti —edo askotan— euskaraz (edo gaztelaniaz) egiten, orduan «inorekin ez» idatzi behar duzu. Hala ere, saia zaitetz hutsik ez uzten. Pentsatu ondo, eta zintzo erantzun. Bete ondoren, irakasleari eman.

ADIBIDEZ:

*Ainhoarekin* euskaraz egiten duzu beti eta Liernirekin beti —edo askotan— gaztelaniaz. Horrela bada, zure erantzuna ondokoa izango da:

**EUSKARAZ** egiten dut.....**Ainhoa**.....-(re)KIN

**GAZTELANIAZ** egiten dut.....**Lierni**.....-(re)KIN

Irakasleak edo arduradunak zuri dagokizun zenbakia emango dizu. Erantzun-orrian zure ikasmaila, ikastaldea eta zenbakia idatzi behar dituzu. Esandako zenbaki horixe idatzi behar duzu, zure zenbakia alegia: gogoratu zure izena ez duzula idatzi behar. Zerbait ulertu ez baduzu, edo zerbait jakin nahi baduzu, galdetu orain irakasleari. Lanean hasitakoan, pentsatzen duzuna idatzi lagunarekin hitz egin gabe. Zure laguntza garrantzitsua da. **Eskerrik asko.**

Erantzuna:

Ikasmaila: ..... Ikastaldea: ..... Zenbakia: .....

• **EUSKARAZ** egiten dut .....-(re)KIN

• **GAZTELANIAZ** egiten dut.....-(re)KIN